

2003KO ABENDUAREN 18KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hiruko abenduaren hemezortzian, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti, Juan Manuel Serna Portugal, Alejandro Crespo Blanco eta Angel Olaso Villalba.

Aktan adieraziko da Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2003ko azaroaren 27an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- FUTBOL ZELAIKO PROIEKTUEN BEHIN-BETIKO ONARPENA.-

2003ko irailaren 25eko Osoko Bilkuran eman zitzaien hasierako onarpena Juan Azkue Toledo arkitektoak Harizti Handi Futbol Zelaiaren erreforma proiektua eta Roberto Gartzia Azpiri eta Ana Ezeiza Agirre arkitektoek Harizti Handi Futbol Zelaiko Aldagelen erreforma proiektuari.

Proiektu hauek jendaurrean egon dira hamabost egunetan eta denboraldi horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Hori horrela behin betiko onarpenera aurkezten dira proiektu hauek.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien, hamabi (12) botu, aldeko bo-tuarekin proiektu hauek onartzea erabakitzen du.

IV.- SANTA MAGDALENA 4 ETA MIKELAR 6KO BEHEEN KALIFIKAZIO JURIDIKOA-REN ALDAKETA.-

Santa Magdalena 4 eta Mikelar 6ko eskubialdeko ataripeen Kalifikazio juridikoa aldatzeko izapidatutako espedientea ikusi ondoren, Udal Osoko Bilkurak, 2003ko irailaren 25ean egindako batzaraldian, haserako onarpena ematea erabaki zuen.

Espedientea jendaurrean egon da hilabete bateko epean eta denboraldi horretan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere pardaide guztien, aldeko botuarekin, hamabi (12), eta beraz bere legezko gehiengo osoaren aldeko botuz, Santa Magdalena 4 eta Mikelar 6ko eskubialdeko ataripeen Kalifikazio juridikoa ondare edo be-reak izaera juridikora aldatzeari behin betiko onarpena ematea erabakitzen du.

V.- FUNTZIONARI PLAZA SORTZEA-

Alkateak esaten du gai honen inguruan jendartetik hitzegin ahal izateko Irantzu Amundarain A.ren eskaria jaso dela eta hitza ematen dio eskatzaileari, adieraziz jendarte-tik esaten dena entzun ondoren gaia zinegotzien artean eztabaidatuko dela gero dagokion erabakia hartzeko.

Irantzun Amundarain A.k jendartetik esaten du 2001eko apirileko plenoan langile-en funtzionarizazioa erabaki zela baina laboral postuak mantenduko zirenaren konprome-zuarekin, eta beraiek horregatik onartu zutela.

Alkateak esaten du orain artean 2 teknikari aritu direla Gizarte Zerbitzuetan, bata lansaioaren %70ean eta bestea lansaioaren %50ean. Esaten du baita ere, lansaioa %70ean zeukanarena hutsik gelditu dela, bere titularren ezintasun baten kausaz, eta horrek Zerbitzuaren birrantolaketa egitera bultzatu duela Udala, eta birrantolaketa egiteko modurik egokiena lehen dauden bi laboral plazak amortizatu eta lansaio osoko funtzionari plaza bat sortzean datzala.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du Irantzuk esan duen bezala 2001eko apirila-ren 26ko aktan aktan esaten denari heltzen dietela, eta akta honetan esaten da pertsona hauei esan zaiela Udal honen borondatea orain arte bezala beraien postuetan jarrai de-zaten dela, baldintza berdinetan eta beren jubilazio arte eta orain egin nahi dena lanpostu hoieri traizioa egitea dela eta beraiek ez daudela ados eta ez dutela honekin bat egingo. Esaten du baita ere, bere egunean funtzionarizazio egin zenean beraien ezadostasuna azaldu zutela, postu batzuek bakarrik funtzionarizatzea diskriminazioa egitea zela irudi-tzen zitzaielako eta orain egin nahi dena berriz diskriminazioa ez baizik traizioa dela. Gehitzen du ados daudela funtzionari plaza sortzearekin baina ez honek berekin laboral plaza amortizatzea baldin badarama. Eta, bukatzen du esanez, proposamena zentzu honetan egiten denez, beraiek aurka bozkatuko dutela.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du ez duela ikusten % 50 eta %70eko beharrak funtzionari plaza bakar batekin nola bete daitezkeen, hau harekiko %20 gutxiago delako. Esaten du baita ere funtzionari hori gaiso jarriko balitz, edo oporrak hartu, lan hitzarmene-ko kontratatu bat beharko litzakela ordezkatzeko. Esaten du baita ere 17 urtetako zerbi-tzuek kalteordain pertsonalen bat behar duela eta ezin zaiola 3. hizkuntz eskakizuna jarri, pertsona horrek euskara badakienean. Esaten du baita ere ordainsari maila ere igo egin beharko litzatekela. Eta gehitzen du beraz ez dituela gauzak argi ikusten, behar bada gehiago aztertu beharko dela eta guzti horregatik aurka bozkatuko duela.

Alkateak esaten du aipatzen den Pleno hartan esandakoa ez direla ukatzen ari baina bai esan beraien ikuspegitik aldaketa garrantzitsua eman dela, bi plazatako bat hu-tsik gelditzean, eta horrek birrantolaketa egitea eskatzen duela eta hemen planteatzen dena beraien ustez birrantolaketa egokiena dela. Esaten du baita ere funtzionarizazioa egin zenean datu objetibo batzuek eduki zirela kontutan eta ez zela diskriminatorioa izan. Plaza batekin ezingo litzakela baxa edo opor egoerei erantzun esaten denari erantzuten

dio esanez Udalean plaza gehiago badaudela horrela baita ere, eta kasu honetan beste kasuetan bezala konpondu beharko lirateke aipatzen diren egoera horiek. Euskara ez eskatzearenari erantzuten dio esanez Udal honetatik ahalegin handia egin dela, ez duela orain esango zehazki zenbait denbora egon diren bi plaza horiek okupatzen zituzten bi pertsona horiek liberatuta euskara ikasteko, eta ez dela lortu, baina, gehitzen du, hizkuntz eskakizunarena ez dela kapritxo bat baizik eta lanpostu horren betebeharrak. Lanpostuaren ordainsari mailari buruz esandakoari erantzuten dio esanez funtzionario izan edo langilea izan orainsari maila handiagoa ala txikiagoa behar den ez dakiela eta ez dakiela gai hori nondik ateratakoa den. Bukatzeko esaten du egiten den proposamena, lehen aipatutakoa dela, zehazki honako hau:

Lansaiaren %70a duen lan kontratupeko Gizarte Langile lanpostuaren plaza eta lansaiaren %50a duen lan kontratupeko Gizarte Langile lanpostuaren plaza amortizatuz, eta Plantilla Organikoan nahiz Lanpostuen Zerrendan adierazten diren ezaugarriekin, B Taldeko funtzionario gisa, Gizarte Zerbitzueta Teknikari plaza eta lanpostuaren sorrerarekin Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda aldatzea.

Lansaiaren % 70a duen asistente sozial lanpostua hutsik dago, bere titularrak ezintasunagatik aitorpena lotu ondoren.

Lansaiaren %50a duen lan erregimeneko asistente sozial plaza, 1992ko urtarrilaren 1ean izenpetutako lan edo zerbitzu jakin baterako kontratu baten bidez dago beteta eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Txiotasunaren aurkako Egitasmoari dago lotuta.

Gizarte Zerbitzueta arloan Gipuzkoako Foru Aldundiaren ondoz ondoko egitasmoek, plaza mantendu eta finantzatzea gauzatu dute.

Hala ere, Udalaren beharrak egitasmoetara ez dira mugatu eta zerbitzuen emateak gizarte zerbitzueta propioak diren gai guztiak hartu ditu bere barne.

Gizarte zerbitzueta arloko gaur egungo egoera eta beharren aurrean, lansai izango duen funtzionario izaerako gizarte zerbitzueta teknikari baten bidez betetzea aholkatzen dute.

%50eko lansai duen amortizatutako plaza, gaur egun MARIAN JAUREGI TURRIENTES A.k beteta aurkitzen dela kontutan izanda, lan erregimeneko plazaren amortizazioak ez du berekin berau automatikoki utzi beharra ekarriko, bertan mantenduko delarik sortutako funtzionario plaza erregelamentarioki betetzen den bitartean.

Sortzen den plaza eta lanpostuaren ezaugarriak honako hauek lirateke:

- Izena: Gizarte Zerbitzueta Teknikaria
- Eskala: Administrazio Berezia
- Azpieskala: Teknikoa
- Mota: Ertaina
- Sailkapen Taldea: B
- Ordainsari maila: EULEBaren 14. maila
- Hizkuntz eskakizuna: 3.a
- Derrigortasun data: 2003ko abenduaren 18a
- Lanpostuaren betetze sistema: lehiaketa-oposizioa

Serna zinegotziak esaten du datu objetibotaz hitzegiterakoan alkateari bi gauza ahaztu zaizkiola eta esaten du orain amortizatzea planteatzen den bi postu horietako bat

okupatzen duen pertsonak, Marian Jauregik, hamalau urte daramatzala bere eignkizuna egiten, eta beraiek dakitenaren arabera behintzat oso emaitza onekin eta eginkizunak oso zuzen garatuz, eta hauek ere datu objetiboak direla gehitzen du. Esaten du baita ere, modurik egokiena funtzionari plaza sortu eta beste bi plazak amortizatzea esaten duenean, beste modu bat orain lanean dabilen pertsona funtzionarizatzen saiatzea litzakela.

Olaso zinegotziak sortu eta amortizatzen deneko %20ko alde hori azpimarratzen du berriro ere eta gehitzen du pixka bat herren gelditu behar dugula.

Jendartetik berriro hitzegiteko egiten den eskaeraren aurrean Alkateak erantzuten dio, jendartetik hitzegiteko jarraitzen den prozedura orokorra, gaia zinegotziek eztabaidatzen hasi aurretik hitzegitea dela, jendartetik hitzegin ondoren gaia zinegotziek beraien artean eztabaidatuz. Dena den hitza ematen dio.

Jendartetik izandako interbentzioari alkateak erantzuten dio. Baita ere aurretik hitzegin dutenei erantzuten die.

Une honetan Inazio Estensoro zinegotzia bertaratzen da.

Jarraian bozketan jartzen da gaia eta Osoko Bilkurak, aldeko hamar (10) botu (EAJ, EA) eta aurkako hiru (3) botuz, proposamena onartzea erabakitzen du.

VI.- 2002KO KONTU OROKORRA.-

2002 ekitaldiko Kontu Orokorra Kontuetaarako Batzorde Berezian aurkeztu zen 2003ko azaroaren 4an honek egindako bilkuran.

Ondoren jendaurreko erakustaldian jarri zen, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2003ko azaroaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik. Jendaurrean egon den 15 lanegunetan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Ondoren 2002ko Kontu Orokora hau berriro Kontuetaarako Batzorde Bereziak aztertu eta informatua izan da.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du harritu egin dituela auditoritza txostenean egiten diren puntualizazio edo aholku mordoak nahiz eta esan behar den baita ere orokorrean kontuak Lazkaoko Udalaren egoera fidelik islatzen duela esaten dela, dena den puntualizazio guzti horien aurrean abstenitu egingo direla.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du aholkuak hobetzeko izaten direla eta hobetzeraz joan behar dela horretan, denak ados daudela.

Hau honela, dagokion legeriak dioena jarraiki, Osoko Bilkurak, aldeko 11 botu (EAJ, EA, PP), aurkako boturik gabe eta bi abstentzioz (PSE-EE), 2002 ekitaldiko kontu orokorra onartu egiten du.

VII.- 2004KO AURREKONTUA.-

Alkateak, onarpenera aurkeztzen den aurrekontuaren azalpena egiten du gastu eta sarreretako partida esanguratsuenen aipamena eginez. Esaten du aurrekontu hau guztira 4.102.710,00 € eurotakoa dela; jarraian gastu eta diru-sarreraren kapituluko laburpenaren zehaztapena egiten du.

Aurrekontu zenbakiekin batera Aurrekontu-Exekuziorako Udal Araua aurkezten da baita ere bere onarpenerako, bere espedientean aurkitzen dena.

Alkateak esaten du Olaso zinegotziak aurrekontu onekiko osoko enmendakina eta zatikako hiru enmendakin aurkeztu dituela, Udalbiltzari transferentzia, Goierri Telebistari transferentzia eta Goi Karguen ordainsariak partiden aurka.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du, alde batetik, gastuetako IV. kapituluari Udalbiltzari transferentzia egiteko partidaren aurka leudekela, aurrekontuari nazional erakuntzako izaera ematen zaiolako eta alderdi sozialista horrekin ados ez dagoelako; bestalde, Goierri Telebistarentzat aurrikusten den transferentziaren aurrean esaten du beraien beren zalantzak dituztela era honetako ente pribatu bat diruz lagundu beharrekoa ote denari buruz. Baita ere ikastetxeetako garbiketa gastuetarako partida baten inguruko argibideak eskatzen ditu eta argibide horiek eman egiten zaizkio.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du Goi Karguen kalteordainei buruzko partidaren inguruan iruditzen zaiola diskriminazio garbia dagoela kalteordain horien banaketa egiteko moduan, eta EAJ eta EAKoei alde batetik eta PSE-EE eta PPkoei ematen zaizkien kalteordainen aurrean, lehen maila eta bigarren mailako zinegotziak daudela ikusten dela; Udalbiltza eta EUDELi transferentzia egiten zaien partidaren inguruan, esaten du Udalbiltzari dirulaguntza ematea ez dela beharrezkoa zeren Batzar Nagusietan hor daudela lehen ere, hauetan udal guztiak ordezkaturik daudela eta udal guztien ama direla, eta Udalbiltzaren udalen erakunde paraleloa sortzen dugula; Goierri Telebistari dagokionean esaten enpresa pribatua izanik imajinazio eta ahalegin propioen erizpidearekin maneiatu behar harko litzakela, gerta daitezkeen lazkaotarren batek horrelako enpresaren bat sortu nahi izatea eta dirulaguntza eske etortzea baita ere, eta hori "paternalismoa" litzatekela eta ez litzakela onartu behar. Bukatzen du esanez guzti horregatik aurrekontuari osoko enmendakina aurkezten diola.

Estensoro zinegotziak (EAJ) Udalbiltzaren inguruan esan duenari erantzuten dio esanez ez duela uste bera horren injenuoa denik eta benetan Udalbiltza eta Batzar Nagusien artean bikoiztasunik dagoela pentsatzen duenik, gehitzen du udalbiltzarena erabaki politikoa dela eta zentzu horretan proiektu bat daukala eta Batzar Nagusiak iristen ez diren beste lurralde batzuetara iristen dela, ados egon daiteke ala ez, hori ulertzen duela baina ez duela ulertzen Batzar Nagusiekin bikoiztasuna dagoela esatea.

Alkateak, Olaso zinegotziak goi karguen kalteordainei buruz esandakoei erantzuten die. Baita ere, esaten du, harrituta gelditzen dela bai Serna, bai Olaso zinegotziak, aurrekontuari aurka egiteko atzetik euskeraren inguruko transfondoak duten partidetan bat datozela ikustean, hau da, Udalbiltza eta Goierri telebistari diruz laguntzeko partidetan.

Olaso zinegotziak esaten du euskara ondo iruditzen zaiola baina instituzio bezala dela ikusten ez duena, Udalbiltzarena, instituzio paraleloa dela iruditzen zaiolako.

Eztabaida zabal baten ondoren, enmendakinen bozketa egiten da. Lehenengo Olaso zinegotziak aurkeztutako aurrekontuari egiten zaion osoko enmendakina jartzen da bozketan eta, Osoko Bilkurak, aldeko hiru (3) botu (PSE-EE, PP) eta aurkako hamar (10) botuz enmendakina ez da onartzen.

Olaso zinegotziak esaten du osoko enmendakina atzera bota denez, matizen bat sartu nahiko lukeela ea horrela konbentzitzen dituen eta esaten du goi karguen kalteordainak partida 1995eko akordio batean oinarritzen dela eta berrikusi egingo lukeela, eta gehitzen du berak baino hobeto Udal hau ordezkaturik lukeen inor ez legokela Sanitate

Batzordearen gidaritza hartzeko, esaten du baita ere batzordeak bi motatakoak bezala sailkatzen direla eta berak uste duela denak maila berekoak behar dutela, esaten du baita ere Sanitate batzordea kendu egin zela eta berak batzorde hori erreibindikatzen duela.

Zumelaga zinegotziak (EA) erantzuten dio Sanitate batzordea badagoela, Gizarte Zerbitzuak eta Sanitate batzordea dela hain zuzen ere.

Alkateak esaten dio berak aipatzen duen 1995eko akordio hori, udal honen osaketa egin ondoren onartua izan zela berriro ere, eta Olaso zinegotziak alde bozkatu zuela gainera.

Olaso zinegotziak esaten du berak batzorde guztiak maila berekoak izatea eskatzen duela. Baita ere esaten du Udalbiltza-Eudelren inguruan, 4.500 eta 7.000ko partida hauek biak bat egin behar direla eta 15.150 euro eman etxez-etxeko laguntza eta gizarte larrialdietarako, merkatal errotuluetarako ematen dena, gaztelerazkoei ere eman behar zaiela eta Alderdi Popularraren maiatzeko hauteskundeetako progaman agertzen zituzten Infantaduaren transformazio azterketa egitea, 5.000 euro, erreken berreskuraketa azterketa teknikoa, erreken ondartzarekin, 5.000 euro, eta kulturari, prentsa, errebista, liburu eta abarretarako beste kopuru bat, eta honek guztira 15.150 egingo lukeela.

Olaso zinegotziak aurkeztutako lehen zatikako enmendakina bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko hiru (3) botu (PSE-EE, PP) eta aurkako hamar (10) botuz (EAJ, EA), enmendakina atzera botatzen da.

Olaso zinegotziak aurkeztutako 2. eta 3. zatikako enmendakinak bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko botu bat (1) (PP), aurkako hamar (10) botu (EAJ, EA) eta bi (2) abstentzioz, enmendakinak atzera botatzen dira.

Guzti honen ondoren, bozketan jartzen da 2004ko aurrekontua eta Osoko Bilkurak, aldeko hamar (10) botu (EAJ, EA) eta aurkako hiru (3) botuz (PSE-EE, PP) honako akordio hauek hartzen ditu:

Lehenena.- 2004 urterako udal aurrekontua haserako izaeraz onartzea. Aurrekontu honen sarrera eta gastuen kapituluko laburpenak honako hauek dira:

2004KO AURREKONTUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENeko ZERGAK	859.800,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	60.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	619.410,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.183.500,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	20.000,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANAKETA	360.000,00 €
SARRERAK GUZTIRA			4.102.710,00 €

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	943.100,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	1.814.660,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	279.600,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	942.000,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	122.350,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA-AKTIBOAK	1.000,00 €
<u>GASTUAK GUZTIRA</u>			<u>4.102.710,00 €</u>

Bigarrena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost lanegunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

VIII.- 2004 PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDIA.-

Jarraian eta Hazienda, Pertsonal eta Gobernamentu Batzordetik, Osoko Bilkurara aurkeztu dira bere onarpenerako 2004rako Udako Langileen Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrendia, bere espedientean aurkitzen direnak.

Alkateak esaten du Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrendia hauek, lehen erabakitako plaza eta postu sortze eta amortizazioak aldatuz gero, gainontzean iazkoen berdinak direla.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du funtzionario plazaren sorreraren aurka bozkatu dutela eta ondorioz abstenitu egingo direla.

Udako Osoko Bilkurak, aldeko hamar botu (EAJ, EA), aurkako botu batez (PP) eta 2 abstentzioz (PSE-EE), 2004ko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrendia, bere espedientean aurkitzen direnak, onartzea erabakitzen du.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak esaten du ohiturarekin jarraituz, datorren asteazkenean, abenduak 24, eguerdiko ordu batean, Esparru Elkartean Udako langile eta zinegotzientzat hamaiketako prestatuko dela eta zein joango den aurrez jakitea komeni dela.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zortzi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.